

## Andoingo Lanbide Heziketa

*Euskaldunon Egunkaria*, 1995-10-21: 3.

La Salleko anaiak Andoainera Errepublikara garaian etorri ziren, 1933an: Lanbide Heziketa saila gerrondoan, 1945ean sortu zen. Hau dena XVIII. mendean Juan Legarra Etxebeste Eguzkitzak gauzatutako fundazio baten ondorio preziatua. Hiru gizaldiko historia hau da nik orain hogeitaz hamar adierazi nahi dudana: 1. Juan Legarra, gizon aberatsa, Gipuzkoako Batzar Nagusietan diputatu nagusi izendatu zuten 1724an. 2. Hamaika urte geroago, Andoingo Irigoien etxean Apeztegi baten asmoko Maiorazgoa sortu zen. 3. Eraiki, egiatan 1911n egin zen Andoingo Seminario Txikia gaur La Salle dagoen lekuan, baina 13 urte geroago, 1924an, sute batek suntsitu egin zuen; Seminarioa Saturraranera aldatu zuten, eta hala ere Andoainen 21 ikasleko zentru txiki bat geratu zen. 4. Gure garaian, 1933eko urriaren 17an. On Joaquin Bermejo errektore jaunak bultzatua sortu zen hemen Lasalletarreko Kristau Eskolak deritzana, Jose Maria Iciar buru zela. 5. Honen ondoren dator *Legarra Etxebeste Fundazioaren* lana eta orain ospatzen ari garen *Lasalle Berrozpe* izeneko Lanbide Heziketa sailaren mende erdia. Zorionak.